

Mañari.

Eri-jayak.

Geure efi-zandari andija'ren jayetan gagoz. Andera Miren egunian, goxian, Jaunartze asko. Amafetan meza nagosi edefa, bertoko abeslarijak ederto abestuta. Eta jaupa bi-tartian, Aña Lontzi karmeldar lekai-de gastiak, itzaldi eder-eder bat egin eban; eta danok atsegiñez entzun geuntson.

Eta afatsaldian be, ibildeun (pro-sesiño) ta gustiako elizkixun edefa egin zan.

Efoka deuna.

Efoka deuna'ren egunan be, beti lez, jaya ospatu zan. Egun ofetan ospatu zan meza nagosijan be, Lontzi Afak, berbaldi puntarengua egin eban. Zorijonak Aña.

Ezpata-dantzarijak.

Jayetan, ezpata - dantzari txikijak euki doguz; ta gustijak ederto egon ziran; batez-be, baña, Lete'tar Eusebl Jon, «Artzubi»ko Pelitxu ta «Baseto»ko Eusebitxu.

Dantzari aldriaren maxua, gure alkate jauna ixan da, ta berak, gabak egun eginda egin daben lana, onuratsuba ixan dala, gure mutil-txuok jayetan ederto agertu dabe. Zorijonak.

Ederto!

Aurtengo jayetan, geure asabaen erako efomeri garbijak egin dira; ta aufeskubak be ugari.

Barazar'tar Estepan alkate jaunak be, Andra Mari egunian aufesku bat dantzatu eban. ¡Eta zelan egin bel Txairo ta ederto. Mutiletan be, aufeskulari efimia zala baña, gaur be «or dago» edozeñeri ots egingo leuskijo. Bere aufeskua, gitxitan dantzaz egiten daben emeko neskatil bateri, txalo askoren artian opalduba ixan zan.

Gure ikurina.

Gure ikufin bafija, jayetan, udale-xeko txeigoan dotore agertu zan. Eta, iru margodun ikufin txukunak, axiak batera ta bestera igituta, euzko-jai bat eskatzen inardubala iruditu yaken...

Juan-etorijak.

Larunbatian agurtau gebazan emen, Ortueta'tar Kepe ta Balendin-ñe andera agurgafi ta abertzale zintzuak. Galdakano'tik etofi zan Elberdin'dar Aberedo, bere sendijagaz, Baña efi-jayak dirala ta, «konbidau» etofi diran beste asko be agurtau doguz. Baña idazkijau luziegi doyalako, eurein ixen-abixenak agertzeko geratzen dira. Bestela, pilatu dodazan kontu guztijak idatziko baneuz, izpafingija beingoan beteko litzake. Efi txiki baterako, gauzarik asko jazonen da emen eta.

MAÑARIKO

Ubide.

Auferantza

Ez egitea, atzerantza egitea dala, lengo baten esan geban, eta ori esatea pilosopokeriren bat esatea dala esan dabe, eta pilosoporik, emen, ez dagoana lez, eurentzat ez dala diño Kepatxuk. Ofenbeste... ez adizkide. Lau ta iru zaspi, ta zaspi ta bi bederatsi direala, len bazenkan beintzat, eta orain be badakizu, aztu ez bayatzu. Pilosopokeritzat dozun ori bafiz, zenbatze ori baño ezezagoa dozu. Baña gari ebagitorduan, pilosopokeri ori dala ta ez dala, eskuren bat ebagi ez dagizun, esaten noatsu: lengo ardiak afan bafiekin ekarte, esan nai dabela.

Otxandiano'ko.

Gizon altsu batek auxe esan dabela diñot: Ubidafak eskatzen badabe, e lo esaten badauskue bide bafie egitea nai dabela edo lagunduko dauskaela, bide ori asteko besterik ez dala bear.

Ikastola

edefa neskatilenzako ba-daukagu, ta ez dogu bear besterik irakaslema, irakaslema lortuteko ez da bear lo gaitze asko. Araso ori, ofexegaitik, laster geuganduko dogula-ta gagoz, irakasle ta irakaslema euki daiguzan, efi onetan lenbaitlen.

Garagarik.

Ez daukala, baña garie ugari bai, diño Andrés Artolak, eta gariten, aurtent daturkun negu negargafien, bere etxera elduteko diño.

Naskaldia.

Andra Mariaren Jasokunde egunean, efi onetako, Bilbo aldean direan, gazte danak emen izan zireala esan geinke. Emen ikusi gebazan, Justo, Karpo, Permin, Jose, Julian, Eusebio, Eugenio, Pedro, Blas, Jorge, Periko, Gabino ta beste asko, orain gogoratzen ez yatazanak.

Iruña'ra.

Yoan dira Don Angel zanaren alarguna ta bere alaba Karmen, andik, gero Siguenzara elduteko. Zorionak ibilaldi eder ofetan opa dautseguz.

SASPIKIKO SAGUE

GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizarak, zumitz ugaf-gaitzak

Zubiri'tar Bingen

Artekale, 50 BILBAO

Nabarniz.

Naskaldia.

Ontzi buru edo kapitan esemiñak atarata etxeratu da Lamikis'tar Franzisko mutil gastia. Artu ba gure zorionak, mofozko, zeuk eta zeure aita ama, eta sendi gustiak.

Juan-etorjak.

Emen bere afebeagaz, eta bere sagasti edefak ikustera etofi yaku, gure lengo efitar maite Iburgunet' Purdentzi. Seta edo pefetxiko asko batuta Bilboratu yaku.

Baita Beasko'tar Masime be egunetan Algorta'tik dogu. Ez egin kasurik be, aista, Gernika'ko jayetarako agertuko da-ta. Aldeko'tar Emile be emen egonda bere neba kutunari gari ebaten laguntzen. Ia ba Emili zu beti fin.

Intxausti'tar Agustiña umetxue be ona ekafi ebeñ emen gogortuko zalako usteaz, baña emengo axiak be danari onik ezteutse egiten eta geyago makalduta Algortaratu dabe. Ia ba osatu ainbet ariñen, eta etofi gero ona; emen atzera be poz-pozik artuko zaitugu danok eta.

Abertzaliak.

Gartsu dabiz emen be abertzaliok, Batzokie iminteko ustez, ba lengo sapatuen gau ta gois-alde ekin eidaute enpapeletan, eta gero koneju jan eder bat egin dabe; ango biefak egin dabez majo, gero santso edefak egiteko be, baita egunokaz itxaroten gagoz ikufin edo banderia be; ia ba aren bedenkasiniue danien danok Nabafisera.

ILUNSAR ASPI

Eunak eta soñeko egiñak Zea'ra'tar Erupin

Cenderia 15 Bilbao

Bedarona.

Aspaldi onetan egon naz idatzi barik «EKIN» onetan, baña ikusirik neure efi onetatik urten dabela izparkari asko ta gero atzeruntz egin dabela, itzaldi bat egin barik ezin egon izen naz, ba igaro dan igandean eneban irakuri Bedarona'ko izpafik: asi bai onek, baña arin itxi be.

«Itxas baster»eri.

Bai «Itxas baster» eztakit aspaldi

onetan nun sartunda zagozan. Atso oferi jaramon gitxi einde, jafaituzu auferantz; lotsatu ein bizeunke esaten atsunen bildufe daukazula jori de lotsagafie! ofek iru txakur andiok ki-fatuten ezez daukazu, ba igandetako mesa ostien ardao gitxiago edanda, ta baite opil osua jan biefekuan erdiaz geratuta. Onen erantzupena zeuk esango deustazu.

Bilbo'ko «Ane Miren»eri.

Ezto' uste izan idatziko dozunik «Ane Miren»; ba luzaro egon zara idatzi barik baña bai ofaitio, ta ez edozelako idazkia, gustiz ederto.

Geu gara edo obeto esateko neu naz naiku ganora barik idatziteko, baña eñaz ikasten da-ta, ezta aspertu biar ikasten; ezta inor jayoten ikasita. Alan uste dot nik. Agur gozo bat bialduten deutzut «Ane Miren» ta baite beste irakurle gustieri be, ta ufengorarte.

NI NEU

JANTZIAK
gizonentzako Teadoro-nian egingotzue inun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.
TOVALINA Y C.ª L. D.
SOMERA TT
BILBAO
Lenengo oñian sartukeria dendatik.

Erigoiti.

Eriotza.

Domekan il zan Doroteo, Orkondoakoa. G. B. Lagunduten deutsegu atsekabeen bere alargun ta sendiari.

Erakutsi ona.

Domekan izan zan lelengo klaseko anibersarioa ta Andra Mari egunean Besperak, Aizko Lazaro zan arimearen alde, bere gaste-lagunak atarata, erakusten emonik, euren artean dagoan «alkartasuna». Ondo dago ta jafaitu olaintxe mutilek.

Etofiak.

Balmasedatik etofi dira egun batzuk Josepan etzean igaroten, lengo emeko irakaslea, bere emaste ta alaba Martiñe'gaz. Orozkoti 'k etofi da Sofia Altoakoa. Ondo etofiek.

Andra Mariek.

Andra Mari egunean, geure Zaindari nagosiaren egunean, euki gendun beluko meza jai andietan lez, eta itzaldie egin eban bertako jaupari D. Bizentek.

Automobile trenera.

Astean iru bider yoaten da automobile trenera, astelena, eguastena ta barikuen. Urtetan dau Erigoitin saspiterdietatik zortziretara, Maurizio prestetan danean, ba esanda dago trena ez urtetako bera eldu artean. Gero Gerniken urtetan dau iluntzean saspiterdietan. Urten dayela ba gentiek, beti etzean egon barik.

S.

Elantxobe.

Espata-dantzari txikijak, igaro zan igandian, Ea'n izan jakuzan. Baia eurijak eta egualdi itunak, ezeutsen laguntasun andirik emon. Zoritzafez, eurak esan deuskuenetik, ez ei zan eurija txafena... Gure artian dabilzanakaz dotsagu. Enaratoriori batek ez dabela udarik ekarten?

Ez dozue ori Jenengua; lenengotan inok ez dau alako arpegi gogofik. Azkena balitzateke naiago, baia sulua egin eskero, katu baltzok ikasten dabe bidia. Zulorik ez egitia onena. Beinguan gizonduko al zarie, adizkidia.

Pozik dakusguz,

oitura onen alde alegiñetan dabilzanak ugarituten doiazana. Danon ganetik, ausi onetan gudari zafa dogun «Gama» jaun agurgafija, «Lotsa-

bakokerien aurka» idatzi, dabenak bauko ba mamiña ta guna ta jasa. «Euzkadi» izpafingijak, egunokaz, «Abertzalioñ ixen onagaitik» (Por nuestro decoro nacionalista) diñuanari, guztiz ederto deritxoguz. «Euzko» asterokua be mutil dabil. «Atita ta iloba» deritxon idazkijan, begitu zer diñoskun «Asko dagoz... min luzia daukenak... Ni izkilua artuta mendira... Abendea maite dabela diñue ta ardaotegijetako edarijakaz abendea ondatuten dabiltz». Ortik, ortik dabil erbija, edo obeto esateko, euzko abendea usteldu ta galdu biar daben otzo amufatua, ortik eta santarkeri bidietatik. Usaiñ edefak daukazuz. «Utar'sus» adizkidia. ¡Jo ta kia!

Emengo E. A. B'tzakua

be, orantzu euki daben batzafian erabagi edefak artun ei dabez: «Etiketak», lafegijak diranian, bafegafijak diriala ta, premiñetan dagozan txiroen alde, aldaben giñuan, zer edo zer egiñ biar dabela. Egiz Bilbao'n E. A. B'kuak onetzaz lan edefa egiten dabe. Bada nogandik ikasi. Gertuten diarduen jai egunetarako, etofiko dirian emakumiari, ganezka dabiltzazan soñeko biloxakin afen ez deizala emendik agertu esateko ei dira. Txalo zueri. Egiz, uste dogu, arazo onetan jafaitzale asko izango dozuzala, euskel-jayak gertuten diarduen beste efitetan be. Oinguan, sentzudun aixiak, aixe egiñ dau Elantxo' ben. Aixiok, ez al dira aixe utsetan amaituko. Alkartu ta aufera.

Zaunkaka dabiltzazala, batzun batzuk?

Ofegaitik atzerarik ez gero. Egija badinue, zuzendu burua, aingeruak be, beingun ezarrie izango-ta; ostantzian jaramonik bez. Euren antze-kuak ezarielako da gusti ori. Oberik iruntziten dabe. Danok jasekuak bagiñateke oba, baia artietan jasekuak izateko alegiñetan dabilena ondo dabil. Ara kristiñauak be zenbat garien, baia geyenok zelan gabiltzazan. Osagile bat, edo irakasle bat edo jaupari bat biar leukien bestekua ez balitz, osagile ta irakasle ta jaupari *gustiak* txartzat artziari ondo deritxozue? Asmo onak eta alegiñak: ofek dira nor nor dan jakiteko biderik onenak.

Zenbaki au eskura eltzen jakuneko,

izango dogu nori entzun E. A. B'kuen batzokijen zabalkundia dala ta, izlari askafak eijatorkuz. Danon aufetik Lafañaga'tar Eukeni jaupari argija, elizkizuneko itzaldirako. Elizia zabaldu al bagenduke, ondixek dakigu zelako ostia izango dogun elizan. Belafijak luzatu ta an izango gara gu be, entzun da entzun, txalo ta, txalo.

LILI-EREKA

Beriz.

Geure artian.

Igaro dan igandian izan ziran gure begiak ikuskizun eder bat ikusteraño, ikuskizun au zan efiko seme dan Arana'tar Jon Bingen, Pijauyapura (India)'ko gotzain agurgafija eldu zala bere eusko anayak agurtutera. Ogeta zortzi urte ain ufin igaro afen euskefa garbian egin euskun itzaldi bero bat, beren itzaldian onek itzutsuon bitartez ipiñi euskun Jaungoikuanako eta abefi onentzako maitetasuna. «Zorionak euskotafoi Xabier deunaren seme Euzkadikuo!»

Euskotar batzuen gurariz batzokiko ezpatadantzariak izan ziran efitar seme onen aufian euzko dantzak egiteko aukeratuak; baña toki onetan be beste toki batzuetan lez aurkitu genduan eragozpen bat, endore jaunak, iru edo lau bidar efegu egin afen, alpefik; bere baimena ezin leikela emon erantsunagaz dana amaitu euskun. Agur beste aprilaren ama-

lau batera arte; len, be euren arteko aiz-da.

Laurentzi Deuna.

Igandian, izan ziran Laurentzi Deunaren jayak.

Ausokune onek beste urtietan baño dotoriago apaindu ta argitu euskuzan eleiza eta enparantza, eusko ikufiñez beteta eguazten atsenguonen inguruok. Len esan dodan lez egun atsegiña izan genduan egun au; jaupa nagusija efiko abeslariak abestua izan zan, eta onen ostian aufesku eder bat egin euskuen bertoko mutil gaste bik; baita batzokiko ezpatadantzaria, dantza-aldi bat egin eben, tsalotuak izan ziran mutil askafok. Afatsaldian eusko dantzie iluntzera arte.

«Ekin»eko irakurle gustiai.

Batez be efitafoi dirautzuet nire igaro dan asteko idazkiak inuan lez anaitasunik beruenian bizi biar geunkiala, ta ofetarako lenengo lana dogu geure eztabaida txikiok alde batera itxi ta jafaitu aufera batasunik aundienian, ba onek aztuta ba gabiz, alpefik dira gure lanak, arerijo agertuten diranei ezta zetan txar-to erantzun, ondo baño, au da gure Jesukristo jaunak bere aita jaunari esan eutsana «Aita parkatu egiezu, zer egiten daben ez dakie-ta».

B. EDO B.

Ziarutza.

Jayak.

Emengo jayak bai duaz amaituaz. Esan genduan lez jai edefak ixan doguz Ziafutzako Amaren txadonean: amafetan yaupa nagosia, txonitza lekaide aita Lafagoikoetxea'tar Alesander, Efoma'tik etofita dagonak. Badau jaun onek itz-egiteko efitestasuna; jente asko ixan zan ta guztiak beragaz afituta geratu ziran. Zorionak.

Deun Efoka egunian be yaupa nagosia amafetan ixan genduan, meza edefa abesturik. Gente asko ixan dogu egun bietan; soñua ta dantzia ugari; aurtent dantza garbia asko jo dabe ta guztiak pozez beterik ospatu ditugu gure efi onetako jayak, agur ta datofen urtera-arte.

Mendigoxaliak.

Igaro dan igandean emen ixan genduan Ermuar mendigoxaliak. Egun eder bat igaroteko, ustiagaz etofi ziran baña egualdi txafa egin eutsen. Efi onetan guztiok pozez beterik gure biotzetan aren abesti edefak entzunaz ta ondo dakizue, gu emen gagozala jai eder ori egiteko, zeuk nai dozuenian. ¡Aufera eta beti aufera!

Eskontza.

Joan dan astean Begoña'ko amaren aufean eskondu da, emengo neskatila liraña dan Onandia'tar Miren, Befiatu'ko Egufole'tar Bonigaz. Zorionak ta urte askotarako.

Dabiltzanak.

Burgos'tik etofita gure artian aurkitzen da Meabastafetxea'tar Bingen. Otxandiano'tik Basaguren'dar Pantzeske «emakume abertzale zintzoa». Ondafoa'tik Zenafuzabeitia'tar Miren. Ondo etofiak.

DONE

Markiña.

Txaunburu jaunari.

¿Nun gagoz, Markiña'n ala Cantalapedra'n, Mataporquera'n edo beste olako efiren baten? Gure ertxodonan ¿noizko ofurea da erderaz txonitzak egitia? Asafe asi nazala esango dozu, ene irakurle, baña ezta gitxi-jagotarako be, ba Andra Mari eguneko jaupa nagusijan erderazko txonitza egin zan, eta txadonean egozanak, geyen-geyenak euzkeldunak eta euretatik geyenak erderarik aitzen eztabenak, len esan dodan lez, go-bete agiñegaz gelditu biar.